

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Portugaleteko Udala**

Helduek euskara ikasteko dirulaguntzak emateari buruzko oinarri-arauen hasierako onespena.

Portugaleteko Udalbatzak, 2022ko azaroaren 24an egindako ohiko bilkuran, besteak beste, helduek euskara ikasteko dirulaguntzak emateari buruzko oinarri-arauen hasierako onspena erabaki zuen, ondoko testuaren arabera.

Era berean, erabaki zen iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunean jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko epe bat irekitzea, erreklamazioak eta iradokizunak egiteko modua izan dezaten. Epe hori hurrengo hogeita hamar egunetan egongo da zabalik. Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik egin ezean, araudia behin betiko onartu dela ulertuko da.

Portugaleten, 2022ko azaroaren 25ean. — Alkatea, Mikel Torres Lorenzo

**HELDUEK EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK
EMATEARI BURUZKO OINARRI-ARAUAK****1. artikulua. — *Dirulaguntzen xedea eta helburua***

Dirulaguntza hauen xedea da euskara ikasten duten 16 urteko eta hortik gorako portugaletarrentzako dirulaguntzak eskatu eta zuzenean ematea arautzea, Portugaletako Udalbatzak 2022ko uztailaren 21eko ohiko bilkuran onetsitako eta 2023 urtealdian indarrean egongo den Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren 3. atala, euskalduntze eta alfabetatzeari buruzkoa, bete nahian eta azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Nagusiarekin eta lege hori garatzeko gainontzeko lege-testuekin bat etorritz.

2. artikulua. — *Onuradunak*

Dirulaguntzaren onuradunak izango dira helduei euskara irakasteko HABEren oinarrizko curriculum berriaren mailetako ikasleak, baldin eta egiten dituzten ikastaroak ikasturtean (urritik ekainera) egindakoak badira edo udako ikastaro trinkoak (uztailean, abuztuan edota irailean egindakoak badira:

- a) Portugaletako Udal Euskaltegian edo
- b) HABEk homologaturiko beste edozein ikastegitan, baldin eta
 - a. ikastaroa Portugaletako Udal Euskaltegiak eskaintzen ez badu,
 - b. ikaslea Portugaletako Udal Euskaltegiak onartu ez badu
 - c. edo ikasleak ziurtatzen badu, ikasketak edo lana direla kausa, ezin duela Portugaletako Udal Euskaltegiaren eskaintza baliatu.

Berariaz baztertuta daude dirulaguntze deialdi honetatik ikastaro hauek:

- a. autoikaskuntzakoak
- b. Hizkuntza Eskola Ofizialekoak

Barnetegiei dagokienez, matrikula gastuak baino ez dira diruz lagunduko; baztertuta daude, beraz, bidaia, ostatu eta mantenu gastuak.

3. artikulua. — *Onuradunen eskakizun eta betebeharrak*

- 1. Hamasei urte edo gehiago edukitzea.
- 2. Portugaleten errolatuta egotea dirulaguntza eskatzen duen unean.
- 3. Egiaztatzea, seialdiaren aurreko urteko errentaren aitorpena edo horren balio-kidea erakutsiz, eskatzailearen bizikidetza unitatearen diru-sarrerek gutxieneko hauek gainditzen ez dituztela:

- Kide bakarreko bizikidetza unitatea: 15.828,80 euro.
- Bi kide konputagarriko bizikidetza unitatea: 25.637,31 euro.
- Hiru kideko bizikidetza unitatea: 31.953,48 euro.
- Lau kide konputagarriko bizikidetza unitatea: 37.174,61 euro.
- Bost kide konputagarriko bizikidetza unitatea: 41.239,71 euro.
- Sei kide konputagarriko bizikidetza unitatea: 44.412,01 euro.
- Zazpi kide konputagarri edo gehiagoko bizikidetza unitatea: 6.455,95 euro kideko.

Horretarako, bizikidetza unitatetzat joko da dirulaguntza eskatzen duenaren bizilekuan bizi diren lagun konputagarrien multzoa.

Honako hauek dira bizikidetza-unitatearen kide konputagarriak: aita, ama, tutorea edo adin txikikoa jagon eta babesten duena, eskatzailea, ikaslearen 26 urtetik beherako anai-arreba ezkongabeak edo adin horretatik gorakoak, baldin eta gorputzeko, adimeneko edo zentzumenetako urritasunen bat badute; baita etxe berean bizi diren gurasoen aurretikoak ere.

Kide konputagarritzat joko dira, halaber, hogeita sei urtetik beherako pertsonak harre-ra-familiak legeztatu baditu edo familiaren kontura bizi badira.



Eskatzaileek bizikidetza-unitate independenteak eratzen badituzte, kide konputagarritzat joko dira ezkontidea edo, behar izanez gero, antzeko harremanarekin eskatzaileari lotuta dagoen laguna eta seme-alabak, halakorik balego.

Unitate horren diru-sarrerak zehazteko, deialdiaren aurreko urteko errentaren aitoreneko zerga-oinarri orokorra hartuko da kontuan.

Eskatzaileak errentaren aitorenekin egin beharrik ez badauka, deialdiaren aurreko urtean familia edo bizikidetza unitateko kide guztiek edozein kontzepturengatik jaso dituzten diru-sarrera guztiak batuko dira.

4. Egunean edukitzea tributu behetebeharrek eta Gizarte Segurantzarenak, horrek berez dakarrelarik Portugaletako Udalarekin zorrik ez edukitzea, ez eta tributu izaerako zigorrak ere.

5. Dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ondoriozko ordainketak ere egunean edukitzea.

6. Azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Nagusiko 13. artikulua ditulaguntzen onuraduna izateko dakartzan debekuetan sartuta ez egotea.

4. artikulua. — *Dirulaguntzaren zenbatekoa eta bateragarritasuna*

Dirulaguntzaren zenbatekoa, Portugaletako Udal Euskaltegiko edo zuzenbide publikoeko erakunde edo korporazioen baitako euskaltegi publikoetako ikasleen kasuan, gehienez matrikula gisara ordaindutakoaren %100 izango da.

Euskaltegi pribatu homologatuetako ikasleen kasuan, ordea, dirulaguntzaren zenbatekoa gehienez matrikula gisara ordaindutakoaren %80 izango da.

Kasu bietan, hau da, hala zuzenbide publikoeko erakunde edo korporazioen baitako euskaltegi publikoetako ikasleen kasuan nola euskaltegi pribatu homologatuetako ikasleen kasuan, eskaera bakoitzak gehienez jasoko duen zenbatekoa hirurehun eurokoa (400 euro) izango da.

Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein administrazio zein erakunde publiko nahiz pribatuk helburu berberaz emandako laguntza, diru-sarrera edo baliabide ororekin, baldin eta finantzazio hori zatikakoa bada. Hala izanez gero, ikasleak berak ordaindutako kopururako baino ez du dirulaguntza eskatuko.

Dena delarik, aipatutako Diru Laguntzen Lege Nagusiko 19.3 atala bete nahian, haien zenbatekoak, banan-banan hartuta zein beste edozein administrazio zein erakunde publiko nahiz pribatuk emandako beste batzuei gehituta, ezin izango du diruz lagundutako jardueraren gostea gainditu.

Onetsitako eskaera guztiei ematea ebazten den diru kopuru osoak horretarako ezarritako aurrekontua gaindituko balu, eskatzaile bakoitzari eman beharreko kopurua hainbatatuta gutxituko litzateke.

5. artikulua. — *Dirulaguntzen forma eta epea*

Eskaerak egiteko bi epealdi egongo dira, dirulaguntza hauen urteko deialdian zehaztuko direnak, dirulaguntza zein ikastaro motarako eskatzen den kontuan hartuta:

1. Lehenengo epealdia uztaileko lehen hamabostaldian zabalduko da, aurreko urteko urritik aurtengo urteko ekainerako ikastaroak diruz laguntzeko eskaerak jasotzeko.
2. Bigarren epealdia, berriz, urriko lehen hamabostaldian zabalduko da, aurtengo urteko uztaileko, abuztuko edota iraileko ikastaroak diruz laguntzeko eskaerak jasotzeko.

Diruz lagundu beharreko ikastaro guztien agiriak udaletxeko Erregistrora (astelehenetik ostiralera 8:00etatik 14:00etara) ekarriko dira edo San Roke plazako Herriararren Arretarako Bulegora (astelehenetik ostiralera 14:30etik 20:15era). Halaber dago zabalik tramitazio elektronikoa egiteko aukera; horretarako, ekabide normalizatua aurkeztu beharko da Erregistro Elektronikoa, egoitza elektronikoa bitartez: <https://tramita.portugalete.org>.

**6. artikulua. — *Eskaerekin batera ekarri beharreko agiriak***

Hauexek dira ekarri beharreko agiriak:

1. Eskaera-orria, behar bezala beteta.
2. Datuen alta egiteko edo aldatzeko dokumentua, eskatzaileak eta bankuak beteta.
3. NANaren fotokopia.
4. Diruz laguntzeko ikastaroa Portugaleteko Udal Euskaltegitik kanpo egin bada, ikastegiaren agiria, egindako ikastaro guztien bana, hauexek egiaztatzen dituenak:
 - a. Ikaslearen izen-abizenak.
 - b. Ikastaroaren maila.
 - c. Ikastaroaren egutegia eta ordutegia.
 - d. Ordaindutako zenbatekoa.
 - e. Asistentzia maila.
5. Erantzukizunpeko aitorpena, eskatzaileak Herri Administrazioarekin zorrik ez duelakoa eta halaber betetzen dituelakoa tributu betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
6. Eskatzaileak alegatzen badu, lan edo ikasketen ordutegia dela kausa, ezin izan duela Portugaleteko Udal Euskaltegian matrikulatu, lantegi edo ikastegiaren agiria, eskatzailearen ordutegia egiaztatzen duena eta alegatutako zertzelada hori justifikatzen duena.
7. Eskatzaileak Portugaleteko Udalari baimena emateko agiria, behar bezala beteta eta izenpetuta, Udalak beste erakunde publiko batzuei eskatzailearen gaineko datuak eskatzeko modua izan dezan.
8. Elkarbizitza unitateko kide guztien Errentaren aurreko urteko aitorpenaren kopia edo Bizkaiko Foru Ogasunaren agiria, batetik, eskatzaileak errentaren aitorpenik egin beharrik ez daukala, eta bestetik, aurreko urtean jasotako diru-sarrerak egiaztatzen dituenak. Komeni da 100. eredua edo Likidazio Proposamena izeneko dokumentuak aurkeztea.

Eskatzaileek dirulaguntzen aurreko deialdian ekarritako agiriak ez dituzte berriro ekarri beharko, baldin eta agiritako datuek indarrean badiraute. Horrela balitz, berriz, adierazi beharko dute aurreko deialdian aurkeztu zituztela agiriok eta zehatz-mehatz zeintzuk diren aurreko batean aurkeztutako agiri horiek.

Eskaerek arau hauetan eta deialdian eskatutako datuak agertu ezean edo eskatutako agiriekin batera aurkeztu ezean, interesatuei errekerituko zaie hamar laneguneko epean zuzen ditzaten antzemandako akatsak. Halaber ohartaraziko zaie, horrela egin ezean, ulertuko dela etsi egin diotela dirulaguntza eskatzeari, behin Herri-Administrazioen Administrazio-Jardunbide Arruntari buruzko Legearen arabera eginda.

7. artikulua. — *Izapidetza*

1. Dirulaguntza emateko proposamena kide anitzeko organo batek egingo dio organo emaileari, organo izapidegilearen bitartez.
2. Portugaleteko Udaleko Euskara Zerbitzua izango da organo izapidegilea.
3. Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 24. artikuluaaren arabera,

Portugaleteko Udaleko Euskara Zerbitzuari dagokio, organo izapidegilea den aldetik, ebazpen-proposamena formulatzeko behar diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen ekintza guztiak ofizioz egitea, bai eta 24. artikuluko horren 3. paragrafoan zerrendatzen diren izapidetzarako jarduerak ere.

4. Organo izapidegileak ofizioz egingo ditu ebazpen-proposamena formulatzeko behar diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko egoki irizitako jarduketak guztiak.
5. Eskaera onartu ondoren, dirulaguntza izapidetzeko beharrezkoa den espediente irekiko da.



6. Onartutako eskaera aztertu eta ebaluatu ondoren, organo izapidegileak txostena eta ebazpen-proposamena egingo ditu eta organo emaileari helaraziko dizkio. Berariaz adieraziko du eskatutako dirulaguntza eman edo ukatu den, eta, dirulaguntza emanaz gero, zenbatekoa adierazi ere egingo du.

7. Kide anitzeko organoak, deialdiaren oinarri arautzaileak eta organo izapidegilearen ebazpen-proposamena aztertu ondoren, eskaerak ebaluatuko ditu eta dagokion txostena egingo du.

8. Kide anitzeko organo horretako kideak hauexek izango dira:

- Hizkuntza-normalizazioko teknikari bat, lehendakari-lanetan.
- Hizkuntza-normalizazioko teknikari bat, idazkari-lanetan.
- Kulturako teknikari bat, bokal gisa.

8. artikulua. — Ebazpena

1. Alkate-udalburuak izango du ebazteko eskumena.

2. Ebazpenean zehaztuko da eskatutako dirulaguntza ematea edo ukatzea. Dirulaguntza emanaz gero, onuraduna eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ere adieraziko dira. Ukatzen bada, eskatzailea eta ukatzeko arrazoiak adieraziko dira.

3. Dirulaguntza emateko ebazpena eskatzaileei banan-banan jakinarazteaz gain, Portugaletako Udalaren Gardentasun Atarian argitaratuko dira onuradunen zerrenda eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55.h) artikuluan xedatutakoaren arabera.

4. Prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da, dagokion deialdian eskabideak aurkezteko ezarritako epea ixten denetik kontatzen hasita. Epe hori igaro eta ebazpen adierazirik jakinarazi ez bada, eskatzaileak ulertu beharko du bere eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela, nahiz eta geroago berariaz ebatzi behar den.

5. Administrazio-bidean behin betikoa den udal ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, bai eta, aukeran eta aldez aurretik, beraztertzeko errekurtsoa ere.

9. artikulua. — Onuradunen betebeharrak

- Ezarritako eskakizunak eta baldintzak betetzen dituztela agiri bidez egiaztatzea.
- Dirulaguntza ematen duen organoak egingo dituen egiaztapen guztiak onestea.
- Dirulaguntza ematen duen organoari diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko jasotzen duten dirulaguntza eta baliabide ororen berri ematea.

10. artikulua. — Dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzea

Dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu egingo da, baldin eta justifikatzen ez bada edota Dirulaguntzen Lege Nagusiko 37. artikulua (Dirulaguntza itzultzeko arrazoiak) aurreikusten dituen kausak gertatzen badira.

11. artikulua. — Dirulaguntzak emateko ebazpenaren publizitatea

Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta eskabide guztiak ebatzi ondoren, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 30. artikulua arabera argitalpena egingo da.

12. artikulua. — Arau aplikagarriak

Arau hauetan xedatu ez denerako, honako hauek aplikatuko dira: batetik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; bestetik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; eta azkenik, aplikatzekoak diren izaera orokorreko edo prozedurazko beste arau guztiak.